

## Uda honetan turismoa dinamizatzeko bi kanpaina jarri dira abian

- Donostia Turismoa errealitate berrira egokitu da eta nagusiki bertako publikoarentzat zuzendutako –gertuko eta estatuko publikoa– bi kanpaina osagarri abiarazi ditu, hiria turismogune moduan sustatzeko eta bertako kontsumoa estimulatzeko helburuz.
- *“Uda honetan Hemen Geratuko Naiz”* kanpaina hiritarrei eta gertuko bisitariei zuzentzen zaie: animatu egiten ditu beren hiria eta eskaintzen duen guztia berraurkitzera, hala sektoreko enpresa txiki donostiarra ere susta dezaten. Turismo-esperientziak eta -jarduerak deskontuekin lortzeko aukera izango da gure web-orrian: [sanebastianturismoa.eus](http://sanebastianturismoa.eus)
- Estatuko publikoari zuzendutako *“Arnastu Donostia”* kanpainak tonu leun, emoziozko eta iradokitzaile batez, Donostia turismogune berezi, gertuko, seguru, erlaxatu eta kalitatezko gisa aurkezten du.



**Uda honetan Hemen Geratuko Naiz**

**Eta paddle surfa probatuko dut**

Aukeratu plan bat baino gehiago, eta lortu deskontuak: [sanebastianturismoa.eus](http://sanebastianturismoa.eus)

Donostia San Sebastián

Sabadell

Chimón

NOVA

SEASIDE

SEASIDE & SANDS

SEASIDE & SANDS



uda honetan  
**arnastu**  
Donostia

Donostia San Sebastián

[respirasanebastian.com](http://respirasanebastian.com)

Donostia Turismoak uda honetan bere estrategia egokituko du, koronabirusaren osasun-krisiaren ondorioz, eta donostiarrak eta inguruko bisitariak beraien hiria berriro deskubritzera animatuko ditu, Donostiak duen eskaintza aberatsaz goza dezaten.

Cristina Lagé Turismo Sostengagarriko zinegotziak adierazi duenez, "Pandemiak bultzatu gaitu apustu hori egitera, Estatuan eta beste herrialde batzuetan egiten denaren ildotik. Argi dago turisten mugimenduak ez direla bereziki garrantzitsuak izango datozen hilabeteetan, koronabirusaren ondorioz; beraz, donostiarrak eta gertuko publikoa erakartzeko proposamenak egiten ditugu, aurten Donostiak eskaintzen dituen xarmez gozatzeko".

Bi kanpaina osagarri jarri dira abian helburu hori lortzeko:

### “Uda Honetan Hemen Geratuko Naiz”

Bertako eta gertuko bisitariari zuzendutako kanpaina da. “Uda hau Donostia gelditzeko eta inguratzen gaituen guztia arretaz esploratzeko aukera bat da, egunerokoan jabetzen ez garen gauza, plan, esperientzia edo jarduera horiei guztiei erreparatzeko parada; eta era berean, elkartasun-ariketa bat beren jarduera berreskuratzeko beharra duten Donostiako enpresa txiki eta ertainekin” aierazi du Lagék.




Kanpaina honen bitartez, donostiarrak eta inguruko bisitariak gonbidatzen ditugu hiriak eskaintzeko duen guztia “berraurkitzera”: museoak, bisita gidatuak oinez edo bizikletaz, ur-jarduerak naturan, txangoak... taldeko esperientziak eta irteera pribatuak ere egongo dira. Kontsumoa suspertzeko, gainera, DSS Turismoak **deskontu**-promozio berezi bat aterako du. Bi turismo-jarduera erosiz gero, % 10 deskontatuko da; hiru jarduera erosiz gero, % 15; eta lau erosita, % 25. Esperientziak eskuragai egongo dira [www.sanebastianturismoa.eus](http://www.sanebastianturismoa.eus) web-orrian edo Donostiako turismo-bulegoan (Boulevard, 8).

Inguru hurbilean eta Euskadin zabalduko da kanpaina online publizitate programatikoaren bidez (Search, Display, Discovery, YouTube, Facebook eta Instagram Ads...); 20 milioi inpresio egingo dira, hiriko autobus turistikoak errotulatuko dira, autobusaren markesinetan jarriko da ikusgai, eta irrati bidezko iragarki-laburren bidez, prentsa idatziz eta online ere zabalduko da.

## “Arnastu Donostia”

Estatuko publikoari zuzendutako kanpaina bat da, eta bisitari potentzialek dituzten beste turismo-erakarpenera batzuen aldean Donostiak dituen bereizgarrietan jartzen du arreta. Irudien edertasunaren bidez eta **sentsazioetan** oinarritutako narratiba baten bidez eta tonu sotil, emozional eta atseginez iradokitzen du Donostiak turismogune moduan eta ongizatearen ikur moduan duen kalitatea. Ongizatearen, patxadaren, gozamenaren eta lasaitasunaren hiriaz gozatzeko gonbita luzatzen du.



Donostia Turismoaren web-orriak online edo Donostiako turismo-bulegoan eskuratzeko **proposamen bereziak** egongo dira eskuragai. Kanpaina estatuan zabalduko da online publizitate programatikoaren bidez (Search, Display, Discovery, YouTube, Facebook eta Instagram Ads...); osotara, 40 milioi inprimaki kalera-tuko dira, eta publiko segmentatu bati zuzendutako online prentsaren bidez ere zabalduko da. Mugak ireki ahala, nazioartera ere zuzenduko da kanpaina.

Gipuzkoako Sabadell bankuaren babesarekin, Donostia Turismoaren barruan, kolaborazio publiko-privatuei lotutako aro berri bat ireki da, markaren filosofia eta DSSTurismoak bultzatzen duen ekimena bat datozenean. Kasu honetan, bankuaren filosofia tokiko enpresei eta ekimeei laguntzea da eta horregatik izan dute kanpainetan kolaboratzeko interesa.

Bi kanpaina horiez gain, Donostia Turismoak uneoro eguneratzen du bere web-orri eta sare sozialetako edukia balizko bidaiariei ilusioa pizteko eta Donostiakoak bertako saltokietan kontsumitzera animatzeko. Horretarako, hainbat baliabide erabiliko dira: bideo-minipilulak, bideo eta irudi bidezko blog-esperientziak, 360ºko panoramikak, erreportajeak eta hedabide nazional eta nazioartekoetan hiriari buruz egingako gomendioak, besteak beste.

Cristina Lagé Turismo zinegotziak adierazi duenez, "DSS Turismoak bere Gida Planaren ardatz estrategiko nagusien aldeko apustuari eusten dio: kalitatea, sostengagarritasuna, benetakotasuna eta oreka. Udari begira, hurbileko eta estatuko publikoari zuzenduko zaio nagusiki, eta turismo-sektorearekin lotutako Donostiako enpresei eta DSS Turismoko 330 establezimendu bazkideei ematen dien babesa indartuko du, ekonomia sustatzeko asmoz".